Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko abuztuaren 9a, asteartea — 151 — Martes, a 9 de agosto de 2016

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

**Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia**

*Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2016ko deialdia onartzea: Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileei diru laguntzak emateko Etorkizuna Eraikiz GipuzkoaLab programa, proiektu horiek aukera bihurtuz.*

Diputatuen Kontseiluak, 2016ko uztailaren 29ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu-ekintzarako tresna nagusi gisa sortutako 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren bidez, plana ezartzeko behar den eraginkortasuna bermatzeko gobernantza mekanismoak ezartzen dira, alde batetik, eta, politika publikoen eta lurraldeko helburu kolektiboen arteko lerrokadurari lehentasuna ematen zaio, bestetik.

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko Gipuzkoaren gaitasuna indartzea helburu duen Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan, bi ekimen mota planteatzen dira:

— Alde batetik, «GipuzkoaLAB» programa, ariketa prospektiboa bultzatu nahi duena, epe ertainera etorkizuneko politika publikoak eta erronka estrategikoak eraikitzen laguntzeko. Gaur egungo egoeran, politika publikoek bizi dugun momentuaren interpretazio egokiaren emaitza izan behar dute gero eta gehiago, eta etorkizunari buruzko hausnarketaren ondorioa. Horrek eraman behar gaitu datozkigun erronken emaitzak planteatzera eta gauzak egiteko modu berriak aztertzera.

— Bestetik, Gipuzkoa Taldean proiektua, zeinek, hausnarketa estrategikoan oinarrituta, epe ertainean lurraldeak aurre egin beharreko erronka demografiko, ekonomiko eta sozialak identifikatzea bilatzen duen. Helburua da hausnarketa prozesu bat bideratzea lurraldeko eragile guztien lankidetzarekin, Gipuzkoako lurraldea garatzeko behar diren ideia nagusiak edo orientabideak, modu orokorrean, identifikatze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako hausnarketa estrategikoak hipotesi konformista bat saihestu nahi du etorkizunari aurre egiteko orduan, eta Gipuzkoak etorkizunari aurre egiteko behar dituen baldintza onenak sor daitezela proposatzen du, betiere jarrera proaktibo baten ikuspegitik begira. Nolanahi ere, badakigu krisiaren irteerak eta gizarteak aurre egin beharreko aldaketek oinarriak jarriko dituztela epe ertain eta luzeko eredu sozial eta ekonomikorako. Era berean, Foru Aldundiak Gipuzkoaren berezitasunak sendotu nahi ditu, zehazki, lehiakortasuna, sormena, erakargarritasuna, kohesio soziala eta lurralde oreka.

«GipuzkoaLAB» dinamikari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren planteamendua da hausnarketa prozesu bat irekitzea esparru zehatz batzuetan. Horrek erraztu egingo du proiektu oso zehatzak identifikatzea, lehen planteatu diren etorkizuneko erronkei ekiteko helburuarekin bat etorriz. Ildo horretan honako esparru sozial, kultural eta ekonomiko estrategiko hauek aukeratu izan dira lankidetzan oinarritutako berrikuntza proiektuak garatzeko:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

**Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos**

*Bases reguladoras y convocatoria 2016 del programa Etrokizuna Eraikiz - GipuzkoaLab para la concesión de subvenciones a proyectos innovadores que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa, transformando los mismos en oportunidades.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 29 de julio de 2016, ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Plan Estratégico de Gestión 2015-2019, concebido como el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa, establece, por un lado, los mecanismos de gobernanza que aseguren la eficacia en la implementación del Plan y, por otro lado, destaca como prioritario el alineamiento entre las políticas públicas y las metas colectivas del Territorio.

En el marco del programa Etorkizuna Eraikiz, que tiene por objetivo fortalecer la capacidad de Gipuzkoa para hacer frente a sus retos de futuro, se están planteando dos tipos de iniciativas:

— Por un lado, el programa «GipuzkoaLAB», que busca impulsar un ejercicio prospectivo que ayude a construir las políticas públicas y los retos estratégicos del futuro a medio plazo. En el entorno actual, las políticas públicas cada vez más deben ser fruto de una interpretación del momento que vivimos, y consecuencia de una reflexión sobre el futuro, lo que debe llevar a plantearse tanto las respuestas a los retos que vienen, como analizar nuevos modos de hacer las cosas.

— Por otro lado, el proyecto Gipuzkoa Taldean, que, basado en la reflexión estratégica, busca identificar los retos demográficos, económicos y sociales a los que el territorio se enfrentará en el futuro a medio plazo. El objetivo es plantear una reflexión, compartida con el conjunto de los agentes del territorio, en la que se identifiquen de un modo global las ideas fuerza u orientaciones de desarrollo futuro de Gipuzkoa.

La reflexión estratégica que impulsa la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere evitar una hipótesis conformista a la hora de afrontar el futuro y propone que desde una actitud proactiva Gipuzkoa cree las mejores condiciones para abordar su futuro. Todo ello siendo conscientes de que la salida de la crisis y los cambios que afronta la sociedad guipuzcoana van a sentar las bases del modelo social y económico a medio y largo plazo. Al mismo tiempo, la Diputación Foral se propone reforzar las señas de competitividad, creatividad, atracción, cohesión social y equilibrio territorial que caracterizan a Gipuzkoa.

En lo que se refiere a la dinámica «GipuzkoaLAB», el planteamiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa es abrir la reflexión en ámbitos concretos, lo que facilitará que se puedan identificar proyectos muy precisos en línea con el objetivo de abordar los retos de futuro que más arriba se plantean. En esta línea se plantean los siguientes ámbitos sociales, culturales y económicos estratégicos para la innovación en cooperación:

EK\CV GAO-I-2016-05831

— Gobernantza publikorako eredu berriak.

— Berdintasuna eta aniztasuna.

— Ikus-entzunezko.

— Kontziliazioa edo etxeko eta laneko eginkizunak bateragarritasuna.

— Nagusiak, zahartzea, osasunarekin lotutako zerbitzu berriak.

— Ingurumena eta jasangarritasuna.

— Lurraldeko garapen komunitarioa.

Foru Aldundiak abian jarri dituen proiektu zehatzekin batera, aurreko paragrafoan adierazi direnak, eta Gipuzkoa Taldean ekimenean sor daitezkeen proiektuekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du Etorkizuna Eraikiz ekimenean eragileek eta Gipuzkoako gizarteak zuzenean parte hartzeak lagundu egingo duela ekimenaren izaera eraldatzailean sakontzen, eta ekimenaren proposamen esparrua osatuagoa eta lurraldearen erronketara egokituagoa izango dela. Aldi berean, aipatutako eragile horien parte-hartzeak lagundu egingo du Gipuzkoako erakundeen ekintza publikoa herritarrei gerturatzen.

Hori dela eta, Diputatu Nagusiaren Kabineteko Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritzak deialdi bat egitea proposatu du Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileei diru laguntzak emateko, proiektu horiek aukera bihurtuz.

Foru Aldundiak legealdiaren hasieratik hartu du bere gain Gipuzkoako herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin oro har lan egiteko eta harremanetan jartzeko bideak indartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ulertzen du komunitateko eragileen arteko koordinazioa eta lankidetza ahalbidetuz emaitza positiboak lortuko direla, bai lurralde garapen orekatu eta iraunkorra bilatzerakoan, eta baita ere lurraldearen erronkei erantzuteko ekintzetan.

Erronkei aurre egiteak eskatzen du etorkizunaren oinarri izango diren paradigma berrietara hurbilduko gaituzten berrikuntza prozesuen alde egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, etorkizuneko erronkei eman beharreko erantzunak ez dira etorriko ohiko tresnetatik bakarrik. Beharrezkoa da berrikuntzak aplikatzea erakundeek dituzten jarduteko moduetan. Eraginkortasun handiagoa bilatzeko helburu horretan, Foru Aldundia testuinguru bat sustatzen ari da eragileekin sarean elkarlanean aritzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko eragileekin batera bultzatzen ari den harreman-eredu berria bat dator Europako berriztapen estrategietan jasotako proposamenekin; eta eredu horrek erraztu egiten du lurralde osorako proposatutako estrategiari lagunduko dioten politiken mix orekatua lortzeko aukera. Foru Aldundiaren iritziz, lurralde osoan elkarreragiten duten giza baliabideen, bitarteko fisikoen, hala nola ezagutza eta harreman arloko baliabideen baitan dago etorkizuneko erronkei erantzutea, horiek guztiek ekosistema bat osatzen baitute.

Harreman horren emaitza da elkarrekin produktu konplexu sorta eskain dezaketela eta berrikuntzako elkarrekiko prozesu bat elika dezaketela.

Plan batzuen eta besteen arteko diferentzia, azken batean, plana ezartzeko gaitasunak eta abileziak erabakiko du. Planetan ageri diren ideiak ezartzeko gai izateak emango du bidea «Intended strategies»-tik «realized strategies»-ra pasatzeko.

Azaldutakoaren ildotik, deialdi hau garatzeko estrategiak honako berrikuntza jarduerak sustatu nahi ditu:

— Gipuzkoan eraldaketa sozial eta ekonomikoa dinamizatzeko prozesua aktibatzea, horretarako proiektu multzo berritzaileen bitartez Gipuzkoako erronka estrategiko handiak abaguneetan eraldatzeko dinamikak sortuz.

— Nuevos modelos de gobernanza pública.

— Igualdad y diversidad.

— Audiovisual.

— Conciliación de la vida laboral y familiar.

— Tercera edad, envejecimiento y servicios socio-sanitarios.

— Medio ambiente y sostenibilidad.

— Desarrollo territorial comunitario.

De modo paralelo a los proyectos concretos que como se ha señalado en el parráfo anterior la Diputación Foral ha puesto en marcha, y a aquéllos que derivados de la iniciativa Gipuzkoa Taldean puedan ir surgiendo, la Diputación Foral de Gipuzkoa considera que la participación directa de los agentes y de la sociedad guipuzcoana en la iniciativa Etorkizuna Eraikiz ayudará a profundizar en el carácter transformador de la iniciativa y a que el marco propositivo de la misma sea más completo y ajustado a los retos del territorio, al tiempo que la participación de los citados agentes contribuirá a aproximar la acción pública de las instituciones guipuzcoanas con la ciudadanía.

Con tal motivo, la Dirección de Estrategia de Gestión del Gabinete del Diputado General ha propuesto la convocatoria de una línea para la concesión de subvenciones a proyectos innovadores que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa, transformando los mismos en oportunidades.

El gobierno foral se ha planteado desde el comienzo de la legislatura el reto de intensificar las vías de trabajo y de relación con el conjunto de la ciudadanía, las instituciones y agentes guipuzcoanos.

Entiende la Diputación Foral de Gipuzkoa que facilitando la coordinación y la cooperación entre los agentes de la comunidad se obtendrán resultados positivos tanto en la búsqueda de un desarrollo territorial equilibrado y sostenible como en las acciones para responder a los retos del territorio.

Hacer frente a los retos exige apostar por procesos de innovación que nos aproximen a los nuevos paradigmas sobre los que se construirá el futuro.

Entiende la Diputación Foral de Gipuzkoa que las respuestas a los retos del futuro no vendrán exclusivamente de las herramientas habituales. Es necesario aplicar innovaciones en los modos de hacer institucionales. En este objetivo de búsqueda de mayor efectividad, la Diputación Foral viene impulsando un contexto de trabajo en cooperación y en red entre diferentes agentes.

El nuevo modelo de relación que la Diputación Foral de Gipuzkoa viene impulsando conjuntamente con los agentes del territorio es coincidente con las propuestas contenidas en las estrategias europeas de innovación y facilita la adopción de un mix equilibrado de políticas que contribuya a la estrategia propuesta para el conjunto del territorio. La Diputación Foral cree que la respuesta a los retos del futuro depende del conjunto de recursos humanos, físicos, de conocimiento y de relación que interactúan en el territorio conformando todo ello un ecosistema.

El resultado de esta interrelación es que juntos pueden llegar a ofrecer un paquete de productos complejos y pueden alimentar un proceso recíproco de innovación.

Se considera que la capacidad y la habilidad en la implantación marca, al final, la diferencia entre unos planes y otros. Ser capaces de implantar las ideas que aparecen en los planes es el elemento que hará pasar de «Intended strategies» a «realized strategies».

En línea con lo expuesto, la estrategia de desarrollo de la presente convocatoria persigue promover actividades de innovación para:

— Activar un proceso de dinamización de la transformación social y económica en Gipuzkoa mediante una serie de proyectos innovadores que permitan generar dinámicas que transformen en oportunidades los grandes retos estratégicos de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2016-05831

— Eremu zehatzetan esku-hartzeko proiektu praktiko multzoa sortzea, garapen prozesuen izaera berritzailea izanik, gida eta katapulta bezala balio dezaketenak ondoren zabaldu eta errepikatzeko.

— Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kapital sozialari probetxu ateratzea praktikara bideratutako ikuspuntu integratzailearen bitartez, elkarlanean oinarritutako proiektu mota berriak eta ekimenak artikulatuz.

— Hitzik onena ekintza bihurtzen dena dela aintzat hartuta, esplorazio praktiko irmoaren alde egitea, etorkizuneko politika publikoetan eragiteko eta bideratzeko gauza izango diren ekintza praktikoak aurkitzeko asmoz.

— Globalizazio ekonomiko-sozialaren ondorio diren aldaketa sozio-kulturalen beharrizanei modu praktikoan erantzuten hastea, horretarako esplorazio eta saiakuntza dinamika proaktiboak sortuz.

— Agertoki praktikoa edo abian jartzeko bultzada erabakigarria behar duten proiektu berritzaileen alde egitea, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa, laguntza ekonomikoa, aginte zein elkarrizketa gaitasuna baliatuz.

— Jatorri askotariko eragile sozioekonomiko dinamizatzaile berrien identifikazio eta artikulazio dinamikak sortzea. Era berean, egituratutako partaidetza modu berriak eta elkarlan publiko-pribatuak bultzatzea.

Horregatik guztiarengatik, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

*Lehena.* Onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan, Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileei diru laguntzak emateko Etorkizuna Eraikiz GipuzkoaLab programaren oinarri arautzaileak, proiektu horiek aukera bihurtuz. Oinarri horiek erabaki honen I. eranskinean jaso dira.

*Bigarren.* Onartzea aipatutako laguntzen 2016-2017 ekitaldiko deialdia, erabaki honen II. eranskin gisa doana.

*Hirugarren.* Baimentzea seiehun mila euroko (600.000 €) gastua deialdi horretarako, kontu sail hauen kargura:

— 2016. urtekoa: 300.000,00 €.

1.0120.200.454.00.01 2016: 50.000 €.

1.0120.200.461.01.01 2016: 50.000 €.

1.0120.200.461.02.01 2016: 25.000 €.

1.0120.200.470.00.01 2016: 125.000 €.

1.0120.200.481.00.01 2016: 50.000 €.

— 2017. urtekoa: 300.000,00 €.

5.0120.200.454.00.01 2017: 50.000 €.

5.0120.200.461.01.01 2017: 50.000 €.

5.0120.200.461.02.01 2017: 25.000 €.

5.0120.200.470.00.01 2017: 125.000 €.

5.0120.200.481.00.01 2017: 50.000 €.

*Laugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

— Generar una serie de proyectos prácticos de intervención en ámbitos específicos y que, contando con carácter innovador en su procesos de desarrollo, puedan servir como guía y catapulta de nuevas prácticas escalables y replicables.

— Sacar partido del capital social del Territorio Histórico de Gipuzkoa mediante un enfoque integrador orientado a la práctica, articulando nuevas modalidades de proyectos e iniciativas basadas en la cooperación.

— Estimando que la mejor palabra es aquella que se convierte en acción, optar por una exploración práctica decidida que pueda conducir a resultados prácticos susceptibles de orientar e influenciar las políticas públicas futuras.

— Comenzar a responder de una forma práctica a las necesidades de cambio social y cultural resultantes de la globalización económica y social, generando para ello dinámicas proactivas de exploración y experimentación.

— Utilizar la capacidad de prescripción, interlocución y apoyo institucional y económico de la Diputación Foral de Gipuzkoa en favor de proyectos innovadores que precisen de un impulso decisivo para su activación y de un escenario práctico para su puesta en práctica.

— Favorecer dinámicas de identificación y articulación de nuevos agentes dinamizadores sociales y económicos, de naturaleza diversa, que introduzcan nuevas formas estructuradas de participación y de colaboración pública-privada.

En su virtud, a propuesta del diputado general y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar, en el marco de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz de la Diputación Foral de Gipuzkoa, las bases reguladoras del programa Etorkizuna Eraikiz – GipuzkoaLab para la concesión de subvenciones a proyectos innovadores que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa, transformando los mismos en oportunidades. Estas bases se adjuntan al presente acuerdo como anexo I.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2016-2017 de las citadas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de seiscientos mil euros (600.000 €) para hacer frente a dicha convocatoria con cargo a las siguientes partidas:

— Anualidad 2016: 300.000,00 €.

1.0120.200.454.00.01 2016: 50.000 €.

1.0120.200.461.01.01 2016: 50.000 €.

1.0120.200.461.02.01 2016: 25.000 €.

1.0120.200.470.00.01 2016: 125.000 €.

1.0120.200.481.00.01 2016: 50.000 €.

— Anualidad 2017: 300.000,00 €.

5.0120.200.454.00.01 2017: 50.000 €.

5.0120.200.461.01.01 2017: 50.000 €.

5.0120.200.461.02.01 2017: 25.000 €.

5.0120.200.470.00.01 2017: 125.000 €.

5.0120.200.481.00.01 2017: 50.000 €.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

EK\CV GAO-I-2016-05831

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2016ko abuztuaren 4a.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua.

(5831)

I. ERANSKINA

ETORKIZUNA ERAIKIZ - GIPUZKOALAB PROGRAMAREN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

*1. Xedea.*

1.1. Oinarri hauen arabera arautzen diren diru laguntzen helburua, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan, eragile ekonomiko eta sozialek sustatutako proiektu berritzaileen finantziazioa da, Gipuzkoak dituen etorkizuneko erronkei erantzuna emateko planteatzen direnak. Gipuzkoaren eraldaketa sozial eta ekonomikorako lurraldeko eragileen dinamizazio prozesua aktibatzea da kontua, zenbait esparrutan eragingo duten proiektu praktikoei laguntza emanez, izaera berritzailea izanik erreferentzia izan daitezkeenak eta eragin biderkatzailea izango dutenak.

Europako Batzordeko Komunikazioan (2014/C198/01), ikerketa, garapen eta berrikuntzari ematen zaizkien estatuko laguntzei buruzkoak diren proiektuetan zehazten diren proiektuen tipologiarekin bat dator: berrikuntza antolaketan, berrikuntza prozesuetan, ezagutzen eta garapen esperimentalen transferentzia jardureak.

1.2. Zehazki, diru laguntzen helburu dira berrikuntza jarduerak barne hartzen dituzte proiektuak, eta hauetara bideratuta daudenak:

— Gipuzkoan eraldaketa sozial eta ekonomikoa dinamizatzeko prozesua aktibatzea, horretarako elkarlanean oinarritutako proiektu multzo berritzaileen bitartez Gipuzkoako erronka estrategiko handiak abaguneetan eraldatzeko dinamikak sortuz.

— Eremu zehatzetan esku-hartzeko proiektu praktiko multzoa sortzea, garapen prozesuen izaera berritzailea izanik, gida bezala balio dezaketenak ondoren zabaldu, hedatu eta errepikatzeko.

— Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kapital sozialari probetxu ateratzea aldera eta praktikara bideratutako ikuspuntu integratzailearen bitartez, elkarlanean oinarritutako proiektu mota berriak eta ekimenak artikulatu.

— Hitzik onena ekintza bihurtzen dena dela aintzat hartuta, esplorazio praktiko irmoaren alde egin, etorkizuneko politika publikoetan eragiteko eta bideratzeko gauza izango diren ekintza praktikoak aurkitzeko asmoz.

— Globalizazio ekonomiko-sozialaren ondorio diren aldaketa sozio-kulturalen beharrizanei modu praktikoan erantzuten hasi, horretarako esplorazio eta saiakuntza dinamika proaktiboak sortuz.

— Agertoki praktikoa edo abian jartzeko bultzada erabakigarria behar duten proiektu berritzaileen alde egitea, horretarako Foru Aldundiaren babesa, laguntza ekonomikoa, aginte zein elkarrizketa gaitasuna baliatuz.

— Jatorri askotariko eragile sozioekonomiko dinamizatzaile berrien identifikazio eta artikulazio dinamikak sortzea. Era berean, egituratutako partaidetza modu berriak eta elkarlan publiko-pribatuak bultzatu.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 4 de agosto de 2016.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(5831)

ANEXO I

BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE LAS SUBVENCIONES DEL PROGRAMA ETORKIZUNA ERAIKIZ - GIPUZKOALAB

*1. Objeto.*

1.1. Es objeto de las subvenciones, cuyo otorgamiento regulan las presentes bases, la financiación, en el marco de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, de proyectos innovadores promovidos por agentes económicos y sociales que se planteen como respuesta a los retos de futuro que tiene Gipuzkoa. Se trata de activar un proceso de dinamización de los agentes del Territorio hacia la transformación social y económica de Gipuzkoa, mediante el apoyo a una serie de proyectos prácticos de intervención en ámbitos específicos y que, contando con un carácter innovador, puedan servir de referencia y puedan tener un efecto multiplicador.

Los proyectos se enmarcan en la tipología de proyectos definidos en la Comunicación de la Comisión Europea (2014/C198/01) relativo al Marco sobre ayudas estatales de investigación, desarrollo e innovación: innovación en materia de organización, innovación en materia de procesos, actividades de transferencia de conocimientos y desarrollo experimental.

1.2. En concreto, es objeto de subvención la realización de proyectos que contemplen actividades de innovación en cooperación cuyas propósitos estén destinados a:

— Activar un proceso de dinamización de la transformación social y económica en Gipuzkoa mediante una serie de proyectos innovadores, basados en la colaboración, que permitan generar dinámicas que transformen en oportunidades los grandes retos estratégicos de Gipuzkoa.

— Generar una serie de proyectos prácticos de intervención en ámbitos específicos y que, contando con carácter innovador en sus procesos de desarrollo, puedan servir como guía y catapultar de nuevas prácticas escalables y replicables.

— Sacar partido del capital social del Territorio Histórico de Gipuzkoa mediante un enfoque integrador orientado a la práctica, articulando nuevas modalidades de proyectos e iniciativas basadas en la cooperación.

— Estimando que la mejor palabra es aquella que se convierte en acción, optar por una exploración práctica decidida que pueda conducir a resultados prácticos susceptibles de orientar e influenciar las políticas públicas futuras.

— Comenzar a responder de una forma práctica a las necesidades de cambio social y cultural resultantes de la globalización económica y social, generando para ello dinámicas proactivas de exploración y experimentación.

— Utilizar la capacidad de prescripción, interlocución y apoyo institucional y económico de la Diputación Foral de Gipuzkoa en favor de proyectos innovadores que precisen de un impulso decisivo para su activación y de un escenario práctico para su puesta en práctica.

— Favorecer dinámicas de identificación y articulación de nuevos agentes dinamizadores sociales y económicos, de naturaleza diversa, que introduzcan nuevas formas estructuradas participación y de colaboración pública-privada.

1.3. Deialdi honetara aurkeztuko diren proiektuak honako eremu tematikoetara mugatu behako dira:

— Gobernantza publikorako eredu berriak: eremu honetan administrazio eta herritarren harreman berritzaileak, komunikazio eta eztabaida publikoa, herritarren partaidetza, politika berriak garatzeko esku-hartzea, proiektu estrategiak garatzeko hiritarren esku-hartzea, gatazkak konpontzeko eredu berriak, administrazioaren lana jarraitzeko eredu berritzaileak, bezalako ekintza berritzaileak sustatu nahi dira.

— Berdintasuna eta aniztasuna: eremu honetan jarduera berritzaileak bultzatu nahi dira genero berdintasun alorrean, kultur aniztasunean, bertakotzean, gutxiengoen tratamenduan, eta abar.

— Ikus-entzunezko: alor honetan ikus-entzunezko ekintza kulturalen tipologia berriak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultura ekosistema, tokiko talentua, kultur euskarri teknologiko berriak, kultur globalizazioari erantzun berritzaileak, bezalako gaiak sustatu nahi dira.

— Kontziliazioa edo etxeko eta laneko eginkizunak bateragarritasuna: eremu honetan jarduera berritzaileak bultzatu nahi dira etxeko eta laneko eginkizunak bateragarri egite aldera. Alegia, emakume eta gizonen artean partaidetza orekatua izatea familia bizitzan eta lan merkatuan eta, horretarako, lan, hezkuntza eta gizarte-baliabideen sistemak berregituratu eta berrantolatu, hortaz, enpleguaren arloan aukera berdintasuna ezartzeko, ohiko rolak eta estereotipoak aldatzeko, eta mendekotasunik duten pertsonen arreta eta zaintza beharrak betetzeko xedez.

— Nagusiak, zahartzea, osasunarekin lotutako zerbitzu berriak: eremu honetan kronikotasunaren trataera, ezintasunaren arreta, zahartzea, ongizatea, jardunbide eta ariketa osasungarriak eta antzerako ekintza berritzaileak sustatu nahi dira.

— Ingurumena eta jasangarritasuna: eremu honetan naturaren zaintza, ingurumena, ekologia, garapen jasangarria, aldaketa klimatikoaren aurkako borroka, mugikortasun jasangarria, ekonomia berdea, ekonomia biribila eta antzerako ekintza berritzaileak sustatu nahi dira.

Lurraldeko garapen komunitarioa: esparru honetan ideia berrien berrikuntza jarduerak sustatu nahi dira (zerbitzuak eta ereduak), aldi berean behar sozialak asetzen dituztenak eta gizakiaren eta gizarte jasangarriaren garapenaren bilaketan aldaketa sozialei erantzuna emango diotenak.

*2. Erakunde onuradunak.*

2.1. Oinarri hauetan arautuko diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, udalek, mankomunitateek edota interes ekonomikoa-AIE duten taldeek, bakarka zein taldeka, Gipuzkoako Lurralde Historikoan proiekturen bat sustatzen dutenak, aurreko oinarrian jasotzen diren jarduera eremuren batean.

Diru laguntzetara pertsona edo erakunde bat baino gehiago elkarrekin edo talde bezala aurkezten badira, eskaeran adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak exekuzioan zenbateko konpromisoa hartzen duen eta bakoitzari aplikatuko zaion diru laguntzaren zenbatekoa, denak onuradunak izanik. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira taldea osatzen duen kide bakoitzaren aitorpenak, taldea izango baita onuradun izan kideetako batek ezin badu, martxoren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluaren arabera.

Dena dela, taldearen erakunde ordezkaria izendatu beharko da, dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen izango

1.3. Los proyectos deberán estar encuadrados obligatoriamente en uno de los siguientes ámbitos de actuación:

— Nuevos modelos de gobernanza pública: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en temáticas tales como nuevas modalidades de relación entre la administración y la ciudadanía, comunicación y debate público social, participación ciudadana, colaboración en la definición de políticas, modalidades participativas de conducción de proyectos estratégicos, nuevas modalidades de resolución de conflictos, nuevas modalidades de monitorización de la actividad de la administración, etc.

— Igualdad y diversidad: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en temáticas tales como igualdad de género, diversidad, interculturalidad, integración, tratamiento de las minorías, etc.

— Audiovisual: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en temáticas tales como nuevas tipologías de prácticas audiovisuales culturales, el desarrollo del ecosistema audiovisual en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, el desarrollo del talento local, innovación tecnológica en los soportes culturales, la respuesta a la globalización cultural, etc.

— Conciliación de la vida laboral y familiar: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en la participación equilibrada entre mujeres y hombres en la vida familiar y en el mercado de trabajo, conseguida a través de la reestructuración y reorganización de los sistemas, laboral, educativo y de recursos sociales, con el fin de introducir la igualdad de oportunidades en el empleo, variar los roles y estereotipos tradicionales, y cubrir las necesidades de atención y cuidado a personas dependientes.

— Tercera edad, envejecimiento y servicios socio-sanitarios: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en temáticas tales como nuevos servicios socio-sanitarios, tratamiento de la cronicidad, atención de la incapacidad, envejecimiento, bienestar, ejercicio y prácticas saludables, etc.

— Medio ambiente y sostenibilidad: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en temáticas tales como la protección de la naturaleza, el medio ambiente, la ecología, el desarrollo sostenible, la lucha contra el cambio climático, movilidad sostenible, la economía verde, la economía circular, etc.

— Desarrollo territorial comunitario: en este ámbito se persigue promover actividades de innovación en nuevas ideas (servicios y modelos) que simultáneamente satisfacen necesidades sociales y crean nuevas relaciones de colaboración que den respuesta a los cambios sociales en la busqueda de un desarrollo humano y social sostenible.

*2. Entidades beneficiarias.*

2.1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases asociaciones, fundaciones, empresas públicas y privadas, ayuntamientos, mancomunidades y/o agrupaciones de interés económico-AIE que promuevan, conjuntamente o individualmente, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa algún proyecto que esté encuadrado en alguno de los ámbitos de actuación recogidos en la base anterior.

En el caso de que se acojan a las subvenciones más de una persona o entidad cojuntamente o en agrupación, en la correspondiente solicitud deberá hacerse constar los compromisos de ejecución que asume cada entidad integrante de la agrupación y el importe de la subvención a aplicar por cada una de ellas, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarias. A la solicitud deberá acompañar tantas declaraciones como entidades formen parte de la agrupación, dado que ésta no podrá acceder a la condición de beneficiara si no lo puede hacer alguno de sus integrantes por aplicación de lo previsto en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

En cualquier caso, deberá nombrarse una entidad representante de la agrupación, con poderes suficientes para cumplir las

EK\CV GAO-I-2016-05831

dituena. Erakunde ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, garapenaren eta kudeaketaren ardura izango du, baita prozesua martxa onean joan dadin beharrezkoak diren bitartekari lanak egin eta harremanak izan ere.

2.2. Gainera, oinarri hauetan arautUtako diru laguntzen onuradun izateko, entitate eskatzaileak ez du sartuta egon behar 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 12. artikuluaren 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezartzen dituen debeku kasuetan; eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

2.3. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.4. 2.2 eta 2.3 ataletan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen deklarazio arduradun baten bidez egingo da.

*3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

3.1. Gastu hautagarriak dira, udaletxeak aurkezten duen jardueraren aurrekontu zehaztuan dauden gastuak, baldin eta garapenarekin zerikusi zuzena badute. Adibidez:

— Pertsonal kostuak. Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

— Ikerketa kontratuko kostuak, jakintza teknikoko kostuak eta lortutako patente edota kanpoko iturri batetik merkatulehiaketa maila osoz arituta lortutako lizentzien kostuak.

— Proiektutik zuzenean eratorritako gastu orokorrak.

— Bestelako ustiapen gastu osagarri batzuk, material, hornikuntza, naiz proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.

3.2. Proiektuak gutxienez 20.000 euro izango ditu diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan.

3.3. Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu, kostu hautagarrien %90a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/orduko izango da.

3.4. Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

3.5. Bidaietan eta mantenuan egindako gastuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzkoan, aurreikusitako baremoak aplikatuko dira.

3.6. Ez dira hautatzeko kostuak izango onuradunarekin lotura duten pertsonei edo erakundeei dagozkienak, salbu eta merkatuko baldintza arrunten arabera egiten den eta diru laguntza ematen duen Administrazioaren baimena lortzen den.

3.7. Kostu hautagarriak ezingo dira merkatuko balioaren gainetik egon eta arrazoizkoak izan behar dira; gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Alorrak mugatu egin ditzake kostu horiek.

3.8. Eskatzaileari ez zaizkio inolaz ere diruz lagunduko zeharkako zergak (BEZa, adibidez) ere, berreskuratu edo konpentsatzeko gai direnean ere.

3.9. Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan oinarri honetan diruz laguntzekoak ez diren gastuak sartuko balitu, edo diruz laguntzekoak izanik ezarritako muga gaindituko balute, edo nabarmen gehiegizkoak balira, kendu edo garbitu egingo dira, diru laguntzaren muga zehazteko oinarri gisa erabiliko den gastu lagungarrien aurrekontua finkatzeko.

3.10. Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru laguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat

obligaciones que correspondan. Esta entidad representante asumirá la condición de coordinadora del proceso, a efectos de responsabilizarse del desarrollo y de la gestión del mismo y las funciones de interlocución y relación necesaria para la buena marcha del proceso.

2.2. Además, para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones reguladas en las presentes bases, las entidades solicitantes no deberán hallarse incursas en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las presentes bases.

2.3. Las entidades no deberán haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.4. La acreditación de lo señalado en los apartados 2.2 y 2.3, se efectuará mediante la presentación de declaración responsable por parte de la entidad solicitante.

*3. Gastos subvencionables.*

3.1. Se considerarán gastos elegibles aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén directamente vinculados a su desarrollo, y en concreto:

— Costes de personal. Se presentará certificado de las horas dedicadas al proyecto.

— Costes de investigación contractual, conocimientos técnicos y patentes adquiridas u obtenidas por licencia de fuentes externas en condiciones de plena competencia.

— Gastos generales directamente derivados del proyecto.

— Otros gastos de explotación adicionales, incluidos costes de material, suministros y productos similares que se deriven directamente de la actividad del proyecto.

3.2. Los proyectos deberán incluir gastos subvencionables por un presupuesto mínimo de 20.000 euros.

3.3. Los costes de personal interno no podrán superar el 90% del coste total elegible, siendo elegible hasta un valor máximo de 35 euros/hora.

3.4. Los costes de personal externo se considerarán elegibles hasta un valor máximo de 69,29 euros/hora.

3.5. En los gastos referidos a viajes y manutención se aplicarán los baremos previstos en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, del Gobierno Vasco, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

3.6. No serán costes subvencionables aquellos correspondientes a personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado y se obtenga la previa autorización de la Administración concedente de la subvención.

3.7. Los costes elegibles no serán superiores al valor del mercado y deberán ser razonables, pudiendo limitarse los mismos a juicio del Área del Diputado General de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

